

Bigarren gauza (bi gogoheta egin behar eta) kirioa. Zertako ez balakatu gehiago errealtate horretaz? Izaniker ere Eusgair-Industria balakatu kirioa. Aipa dezagun joan den larunbatean Miaritze Agirerako zelaian gertatua: jokotarian izenak euskaraz, jokoa ere euskaraz, euskaraz kirioa ere, misio-lur. Behar bada hemen dauden lekuak du **steogop id se** **Janamari MALHARIN-L** **1912-2001**

Daniel LANDART

76. Gaur omentzen dugun Andere Malharin euskaltzale zena, lehen lehenik, fede suharreko sinestuna zen. Laikoa izanagatik, Jainkoari eta Elizari osoki emana zitzaien.

Bertute handia zeukan. Langile paregabea zen eta orotan tre-bea.

Haren begiradak, hastapenean, begiak apalarazten zizkizun, eta gero, irudi zuen, entzuten zintuelarik, kontzientzia ikertzen zizula...

Ahots ozena zuen eta hitz guztiak ongi ahoskatzen zituen.

Mintzatu aurretik mihia zazpi aldiz itzulikatzen zukeela dudarik ez, baina gogoan zuena mihian bilorik gabe erraten zuen.

Haren aholku zuhurrak, denek gain-gainetik preziatzen zituzten.

Bai, bere bizi luzean beti borrokatu da, jende xehearen argitzeko eta ahal bezainbat laguntzeko.

Frantsesez irakasten bazuen ere, **euskarari osoki atxikia zitzaion**. Eta beraz, **euskararen alde zintzoki bermatu da**.

Horra zergatik, Mikel Atxaga jaunak galdetu zidanean **«Bidegi-leak»** sailarentzat zerbait idatz nezan haren bizitza eta obrak aipatuz, atseginekin onartu nuela. Zinez merezitua baitzuen!

Paradaz balia, eskertzen ditut Kati eta Mixel Itzaina adiskideak, Janamari Malharin anderearen paper batzu ene esku utzirik eta argazkiak prestatu irik.

Eta eskertzen dut ere Eusko Jaurilaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza liburuño hau argitaraturik eta andana bat eskainirik.

Hortxetako mahai horren gainean daude... eta nahi duenak ale bat hartzen ahalko du.

Ez ditut beraz liburuño horretan diren guziak errepikatuko baina bai ahalaz laburbilduko.

Lehen urratsak...

Jeanne-Marie Malharin, 1912an sortu zen, Ostankoan.

Hamahiru haurride ziren (bata sortzean berean hil bazen ere).

Etxetiarrak izanez, Ostankoaetik Arberatzera joan behar ukan zuten, gero Aiziritzera, eta azkenean, Donapaleura.

Janamari, Aiziritzeko eta Donapaleuko lehen mailako eskolan ibili ondoan, Uztaritzeko «*Les Filles de la Croix*» komentuko ikastetxean egon zen 16 urte arte.

Bere lehen lanpostua, irakasle gisa, Harparneko eskola giristinoan ukan zuen, 1928an.

Zazpi ikasturteren buruan, Lekuinera igorri zuten. Eta Lekuinen zelarik ohartu zitzaion euskararen garrantziari, ezin sinetsiko gertakari bati esker.

Jakin zuen, baizik eta, ama batek, bere bi alabak (10-12 urtekoak), gau eta egun etxe barnean atxekitzen zituela gorderik, ezkutatuta ! Bere senarretik bereizia izanez, beldur zen, beldur eta nola !, aita haurren bila etorriko zela eta berekin eramaten zituela.

Bi neskek ez ziren egundaino eskolan ibiliak. Inor ez zen etxe hartara hurbiltzen.

Janamari, makila luze bat eskuan harturik, oinez joan zitzairen ikustera, eta Jainkoaren mirakuluz edo, amak atea ireki zion. Beren gordeleketatik ahal bezala jaigarazirik, balakatuz-balakatuz, bi neskatxak nolabait «bildu» zituzten eta sukaldera ekarrarazi. Etengabe dardarka ari ziren, eta irudiz, ez zekiten eleketa.

Bere eskolako orduak bukatu ondoan, maiz ibili zen etxe hartan, eta pazientziarekin eta denborarekin, irri ederreko bi nexkatxa haiek ikasi zuten mintzatzen, irakurtzen eta kontatzen. Eta nola? Euskaraz. Bakarrik euskaraz. Ezin egin bestela ! Alabaina, ez baitzuten hura baizik entzuten etxean... Eta egun batez, neska haietatik bati,

frantsesez zerbait erran ziolarik, hark oihu batean erantzun zion: «*Mintza behar bezala!*».

Neskatxa halekin ukan zuen esperientzia, bere bizi osorako argigarri eta baliagarri gertatu zitzion. Haiei esker ulertu eta frogatu baitzuen euskara hutsez ere irakats zitekeela.

30 urtez mugarren, Irakaskuntzan eta Euskalgintzan

Gaske gaztea zela oraindik – 25 urte! –, Mugerreko *Sainte-Marie* eskolako buruzagi izendatua izan zen eta kargu hori hogeita hamar urtez bete zuen, 1937tik 1967ra.

Mugarren, bi euskaltzale suharrek kuraia eman zioten. Haiek ziren: Jean-Pierre Urricariet erretorea eta Gonzague de Séreville familia ospetsuko nagusia.

Azken honek, behin, pixka bat kitzikatu zuen: - «*Euskara irakatsiko diezu, ez? Ez ahal dituzu gure haurrak euskara ahaztera utziko!*»...

Erantzun zion: «*Nik, ene ofizioan ez dut sekula euskara irakatsi. Baina hona etsenplu bat: aste honetan lehen mailako haurrek lantzen dute baratzea. Landareak, tresnak eta gauza guztiak. Izenak behar dituzte ikasi eta nola idazten diren. Nik egiten dudana, frantsesezko hitzaren parrean ematen dut euskarazkoa eta haurrak berehala ikasten du batetik bestera pasatzen. Biak batera hobetzen dituzte...*»

Haurren primak...

Euskararen alde, ipar Euskal Herrian, 1960a arte kasik bakarra izan den *Eskualzaleen Biltzarra* elkarteak, urtero, eskoletako haur eta gazteei, euskarazko lan bat proposatzen zien, eta sarizat, hoberekek dirua eskuratzen zuten.

Garai hartan, Jean Elissalde *Zerbitzari* apaiz euskaltzaina zen sariketaz arduratzen eta hona zer idazten zuen, 1959an «*Herria*» astekarian:

«Aldudetik Santagrazirat herri gutisko da naski urte guzietz, Jainkoak egin dituen guzietz gero I, Eskualzaleen-Biltzarreko deiari ihardesten duenik Mugerrekoak bezala. Zertako ?Mugerre mugan baita, kaskoin herriaren mugan, eta, hortaz oroit, herrian baita norbeit eskuararentzat hortez eta haginez lanean ari denik: Mugerreko andere erriensa I Sekulan Eskualzaleen-Biltzarrak deliberratzten balu, medaila batez edo nola-nahi bere langile leialenen sarizatzea, ez luke ahantzi beharko andere Malharin bat: hainitz zor dio eskuarak. Bai-eta Eskualzaleen-Biltzarrak I».

Gaur gorai patzen dugun euskaltzale zenak, Mugerren zelarrik, parte hartu zuen ere, 1947an, igandetako bezperak lehen aldikoz euskaraz kantatzen, euskal dantzak eskoletan sarrarazten «Ohidurak» elkartean bidez, eta bereziki «Ikas» itzainetarik bat izan izan, geroxago entzunen duzuen lekukotasunak erakustera emanen dizuen bezala. Bestalde, garai batez, Mugerreko berriak ematen zituen *Herria* astekearian, baita gogoeta artikulua argitaratzen «May-Chan» izenordea erabiliz.

Antzerkilaritza...

Mugerren zeno, 25 urtez antzerkigintzan ari izan zen. Zuzendari gisa, lehenik, komedia hautatzen zuen, eta gero, entsaio bakoitz, bere aholkuak ematen zituen. Eta beraz, urtero, antzerki berri bat eskaintzen zuen *Mugertarrak* taldeak eta herriz kanpo ere ibiltzen zen, hala nola: Ezpeletan, Ortzaizen, Balonan, Uztaritze-Arruntzan, Domintxinen, Donibane-Lohizunen, etabar.

Nik, hain xuxen, teatroaren bidez ezagutu nuen Andere Malharin. Hari esker egin nituen ene lehen urratsak taula gainean. Behin baino gehiagotan errepikatu dit: «Zaude xut, Daniel, xut I Bestenaz, berrogei urtetako arrunt konkortua izanen zira...».

Mugerretik itsasura...

Mugerretik joan zen 1967an eta Itsasun plantatu, euskal kultur-gintzan hasi sailak segitzen zituela, hala nola 8 urtez teatro taldearen zuzendaritza. Erran nahi baita beraz, 33 urtez bermatu dela antzerkilaritza!

Baina oroz gainetik, eskoletan egiten ziren lehiaketez arduratu zen.

Jakin behar da, Janamari Malharin, kasik 80 urte zituela, bere 2 CV edo bi zalditako auto ttarrattadunarekin, oraindik eskolaz eskola ibiltzen zela, haurrek egin lanak hurbiletik kontrolatzeko eta gero sarstatzeko, baita irakasleak euskararen alde akulatzeako!

Bestalde, azken urtetan, haren botz argia entzun ahal izan dugu «Lapurdi Irratia»-n eta «Gure Irratia»-n, bere saioa hasten zuela: «Jainkoak deiziela egun on!».

Eta **beti lehen** ezartzen zuen Jainkoaren gana itzuli da, 2001-eko udan; bizi zeno, sail askotan sekulako ongiak eginik.

Bai segur, Janamari Malharin, euskaltzale gisa, etsenplutzat edo eredutzat har dezakegu.

Eta guk, gure aldetik, segi dezagun ahal bezain suharki euskararen alde. Hori izanen da eginen dlogun omenaldirik ederrena, haren behar bezala eskertzeko!